



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

**AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO**

**ARAUDI ORGANIKOA
REGLAMENTO ORGANICO**

**2007KO IRAILA.
SEPTIEMBRE 2007**



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

REGLAMENTO ORGANICO

INDICE

TITULO PRELIMINAR.- Artículos 1, 2 3 y 4

TITULO I. DE LA CORPORACION.

CAPITULO I.- De la composición, mandato y constitución de la Corporación y elección del Alcalde.- Artículo 5.

TITULO II. DE LOS ORGANOS Y SU FUNCIONAMIENTO.

CAPITULO I.- De los órganos en general.- Artículo 6.

CAPITULO II.- Del Alcalde.- Artículo 7, 8, 9, 10 y 11.

CAPITULO III.- Del Pleno.

Sección 1ª. De sus atribuciones y de la participación de los Corporativos en él.- Artículos 12, 13, 14, 15, 16 y 17.

Sección 2ª. De las Sesiones.

Subsección 1ª.: De sus clases, convocatoria y constitución.- Artículos 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26 y 27.

Subsección 2ª: De la discusión y votación.- Artículos 28, 29, 30, 31, 32 y 33.

Subsección 3ª Del desarrollo de las sesiones.- Artículos 34 y 35.

Sección 3ª. De las actas.- Artículos 36, 37, 38, 39 y 40.

CAPITULO IV.- De la Comisión de Gobierno.- Artículos 41 y 42.

CAPITULO V.- De las Comisiones Informativas.- Artículos 43, 44, 45, 46, 47 y 48.

CAPITULO VI.-De los Consejos Sectoriales.- Artículo 49.

CAPITULO VII.- De la Comisión Especial de Cuentas.- Artículos 50, 51, 52 y 53.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

TITULO III. DISPOSICIONES COMUNES

CAPITULO I.- De carácter general.- Artículos 54, 55, 56, 57 y 58.

CAPITULO II.- Del uso del Euskera.- Artículos 59 y 60.

CAPITULO III.- De los instrumentos.

Sección 1ª: De constancia de actos.- Artículos 61, 62 y 63.

Sección 2ª: De formalización de medios personales.- Artículos 64, 65, 66, 67 y 68.

Sección 3ª: De naturaleza económica.- Artículos 69, 70, 71 y 72.

CAPITULO IV.- De la potestad reglamentaria.- Artículos 73, 74 y 75

CAPITULO V.- De las delegaciones de atribuciones.- Artículos 76 y 77.

TITULO IV.- DEL ESTATUTO DE LOS CORPORATIVOS Y GRUPOS MUNICIPALES.

CAPITULO I.- De la adquisición y pérdida del cargo de Concejales.- Artículo 78, 79 y 80.

CAPITULO II.- De las obligaciones de los Corporativos.- Artículos 81 y 82.

CAPITULO III.- De los derechos de los Corporativos.- Artículos 83, 84, 85, 86, 87 y 88.

TITULO V.- CONTROL Y FISCALIZACIÓN POR EL PLENO DE LA ACTUACIÓN DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE GOBIERNO.

Artículos 89 Y 90.

TITULO VI.- PARTICIPACIÓN CIUDADANA.

Artículos 91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 98, 99, 100, 101 y 102.



ARAUDI ORGANIKOA

AURKIBIDEA

ATARIKO IDAZPURUA.- 1, 2, 3 eta 4. artikulak

I. IDAZPURUA.- UDALBATZA

I. ATALBURUA. Udalbatzaren osaketa, agintea eta erakuntza, eta alkatea hautatzea.- 5. art.

II. IDAZPURUA.- IHARDUTZE SAILAK. IHARDUNBIDEAK.

I. ATALBURUA.- Ihardutze Sailak orokorrean.- 6. art.

II. ATALBURUA.- Alkatea.- 7, 8, 9, 10 eta 11. art.ak

III. ATALBURUA.- Osoko Bilkura

1. Atala. Osoko Bilkuraren aginpideak eta zinegotzien parte hartzea.- 12, 13, 14, 15, 16 eta 17. art.ak

2. Atala. Bilkurak

1. Azpiatala. Motak, deialdiak eta erakuntza.- 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26 eta 27. art.ak

2. Azpiatala. Eztabaida eta botazioa.- 28, 29, 30, 31, 32 eta 33. art.ak.

3. Azpiatala. Bilkuren burutzapena.- 34 eta 35. art.ak.

3. Atala. Aktak.- 36, 37, 38, 39 eta 40. art.ak

IV. ATALBURUA.- Gobernu Batzordea.- 41 eta 42. art.ak

V. ATALBURUA.- Informazio Batzordeak.- 43, 44, 45, 46, 47 eta 48. art.ak.

VI. ATALBURUA.- Alorkako Kontseiluak.- 49. art.

VII. ATALBURUA.- Kontu-Batzorde Berezia.- 50, 51, 52 eta 53. art.ak.

III. IDAZPURUA. ERABAKI AMANKOMUNAK



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

I. ATALBURUA.- Orokorrak.- 54, 55, 56, 57 eta 58. art.ak

II. ATALBURUA.- Euskararen erabilera.- 59 eta 60. art.ak.

III. ATALBURUA.- Tresnak.

1. Atala. Egintzak erasota uztea.- 61, 62 eta 63. art.ak.

2. Atala. Langile-baliabideak.- 64, 65, 66, 67 eta 68. art.ak

3. Atala. Diru-baliabideak.- 69, 70, 71 eta 72. art.ak

IV. ATALBURUA.- Arau-emate ahalmena.- 73, 74 eta 75. art.ak

V. ATALBURUA.- Agintepideak ordezkotzan ematea.- 76 eta 77. art.ak

IV. IDAZPURUA. ZINEGOTZI ETA UDAL-ALDERDIEN ESTATUTOA

I. ATALBURUA.- Zinegotzi kargua jasotzea eta galtzea.- 78, 79 eta 80. art.ak

II. ATALBURUA.- Zinegotzien betebeharrak.- 81 eta 82. art.ak

III. ATALBURUA.- Zinegotzien eskubideak.- 83, 84, 85, 86, 87 eta 88. art.ak

V. IDAZPURUA. GAINONTZEKO IHARDUTZE-SAILEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA OSOKO BILKURAREN ALDETIK.

89 eta 90. art.ak

VI. IDAZPURUA. HERRITARREN PARTE-HARTZEA

91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 98, 99, 100, 101 eta 102. art.ak.



BEHIN-BEHINGO ERABAKIAK

LEHENA: Udalak berrikuskatu egingo ditu funtzio eta zerbitzuen funtsezko jardupideari buruzko bere Ordenantzak, baita bere ondasunen jardupidea araupetzen dituzten Ordenantzak ere.

-

BIGARRENA: Araudi honetan gaitzespen-eskeari buruz xedatuta dagoena ez da aplikatuko Araudi hau indarrean sartu ondoren egin daitezten lehen udalhauteskundeak igaro arte.

HIRUGARRENA: Udalak sailkatu egin beharko ditu azken apirilaren 24ra arte administrazio hitzarmeneko langileek egin dituzten funtzioak, eta, kasuan, kasu, zehaztu egin beharko du zein lanpostu bete beharko dituzten funtzionario publikoek edo lan-itunpeko langile finko edo aldibaterakoek.

Sailkapen hori eginda, langilezerronda aldatzea komeni dela ikusten bada, dagozkion erabakiak hartuko dira, 67.3 artikulua Udaltzaingoaren Zerbitzuari buruz dituen oharpeak berriz adieraziz.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

PRIMERA.- El Ayuntamiento procederá a revisar sus Ordenanzas relativas al Régimen sustantivo de las funciones y servicios y las reguladoras del régimen de sus bienes.

SEGUNDA.- Lo establecido en este reglamento en este reglamento en cuanto a la moción de censura no será de aplicación hasta que se hayan celebrado las primeras elecciones locales a partir de la entrada en vigor del Reglamento.

TERCERO.- El Ayuntamiento, procederá a clasificar las funciones desempeñadas hasta el 24 de Abril último por el personal contratado administrativo, determinándose, según los casos, los puestos a desempeñar por funcionarios públicos o por personal laboral fijo o temporal.

Si como resultado de dicha clasificación se estimare conveniente introducir modificaciones en la plantilla, se adoptarán los acuerdos pertinentes, siendo de reiterar las cautelas que sobre el Servicio de Policía Municipal se contienen en el artículo 67.3 .



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

IHARDUPIDE-ARAUDIA

ATARIKO IDAZPURUA

I. ATALBURUA.- Egoitza

1. Art.

Amorebieta-Etxanoko Udalaren egoitza Amorebietan dago: Udaletxea da bere egoitza.

II. ATALBURUA.- Hizkuntza ofizialak

2. Art.

1.- Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, eta gaztelania dira Toki-Administrazioko hizkuntza ofizialak.

2.- Udaleko agintek bermatu egingo dute bi hizkuntzak erabiltzeko eskubi-dea, eta neurriak hartuko dituzte Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko 10/1982 Legea, Euskararen Erabilpena Arauzko-tzeko Oinarrizkoa, eta hori garatzeko emango diren gainontzeko legegideak zuzen betearazteko.

III. ATALBURUA.- Harmarria eta ikurratza

3. Art.

1.- Udaleko harmarria ondoren aipatzen den eran dago osaturik:

“Aritz orriz eta ezkurrez inguraturik, goian “Zornotza” dioen banda bat du, eta “Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano” dioen beste bat ere”.

REGLAMENTO ORGÁNICO

TITULO PRELIMINAR

CAPITULO I.- De la Sede

Art. 1

El Municipio de Amorebieta-Etxano tiene su capitalidad en Amorebieta, lugar donde radica su Casa Consistorial.

CAPITULO II.- De las lenguas oficiales.

Art. 2

1. El Euskera, lengua propia de Euskadi, y el Castellano son lenguas oficiales de la Administración Municipal.

2.- Los Poderes Municipales garantizarán el ejercicio del derecho a su uso y adoptarán las medidas y medios necesarios para un efectivo cumplimiento de la Ley del Parlamento Vasco 10/1.982, de 25 de Noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, y demás Disposiciones que se dicten para su desarrollo.

CAPITULO III.- Del Escudo y Sello.

Art. 3

1. El escudo del Municipio se organiza del modo que sigue:

“Adornado con hojas de roble y bellotas, una Banda superior con la inscripción “Zornotza” y otra Banda con la inscripción “Ayuntamiento de Amorebieta-



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Ezkerraldeko zatia: Gorria, urre koloreko lis-loreak eta urre-koloreko banda bat.

Eskumaldeko zatia: Urre kolorekoa, enbor marroïdun zuhaitz berdea, urrezko kate eta idunekoa daraman zilarrezko otsoa, zilarrezko lantza eta matxetea, zuhaitz berdearen gainean hegoak zabalik dituen zilarrezko gabiraia.

Norbanakoren batek erabili nahi izanez gero, udal-baimena lortu beharko du aurretiaz.

2.- Udaleko ikurraren osagaiak udaleko harmarria eta izena dira.

IV. ATALBURUA.- Aginte eta ahalmenak

4. Art.

1.- Udal-aginteez autonomiaz ihar-dupidetzen dituzte Udalerriaren interesak, horretarako lurralde mailako Administrazio Publiko izateagatik Legeak onartzen dizkien ahalmen, uste eta eskubideak dituztelarik.

2.- Administrazioaren ihardunbide oinarritzkoari buruzko Legerik ateratzen ez den artean, aipatutako ahalmen, uste eta eskubideak honako hauek dira:

a) Arau-emate eta autoantolaketa ahalmena.

b) Zergapidetza eta dirubide ahalmena.

c) Ondasunak jabegabetzeko ahalmena; ondasunak agindu bidez mugatzeko eta berreskuratzeko ahalmena.

d) Derrigorrez buruarazteko eta zigortzeko ahalmena.

Etxano”.

Panel izquierdo: Fondo rojo, flores de Lis en dorado y Banda en dorado.

Panel derecho: Fondo de oro, árbol verde y tronco marrón, Lobo en plata y collar y cadena de oro, lanza y machete de plata, Gavilán de plata con las alas abiertas sobre el árbol, base verde”.

Su uso por particulares está, en todo caso, sujeto a licencia municipal.

2. El sello del Municipio se integra con su escudo y nombre.

CAPITULO IV.- De las potestades.

Art. 4

1.- Los Poderes Municipales gestionan con autonomía los intereses del Municipio, disfrutando a tal fin de las potestades, presunciones y prerrogativas que la Ley le reconoce como Administración Pública de carácter territorial.

2. En tanto no se dicte la Ley que regule el procedimiento administrativo común, tales potestades, presunciones y prerrogativas son:

a) Las potestades reglamentarias y de autoorganización.

b) Las potestades tributarias y financiera.

c) Las potestades expropiatoria y de deslinde y recuperación de oficio de sus bienes.

d) Las potestades de ejecución forzosa y sancionadora.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

e) Ekintzak eta akordioak agindu bidez ikuskatzeko ahalmena.

f) Legezkotasun-ustea.

g) Bere ekintzak burutzeko eskubi-dea.

h) Bere ondasunak bahitu-ezintzat hartuak izateko eskubidea, Legeetan ezarritakoaren arabera.

i) Ogasun Publikoari bere kredituentzako onarturiko lehenespen, lehentasun eta eskubideak, Estatuko eta Autonomia Elkarteko Ogasunei dagozkien kalteetan gabe.

j) Bere ondasunak programatu edo planifikatu eta ikertzeko ahalmena.

e) La potestad de revisión de oficio de los actos y acuerdos.

f) La presunción de legitimidad.

g) La prerrogativa de ejecutividad de sus actos.

h) La prerrogativa de inembargabilidad de sus bienes y derechos en los términos previstos en las Leyes.

i) Las prelación y preferencias y demás prerrogativas reconocidas a la Hacienda Pública para los créditos de la misma, sin perjuicio de las que correspondan a las Haciendas del Estado y de la Comunidad Autónoma.

j) Las facultades de programación o planificación y la de investigación de sus bienes.

I. IDAZPURUA

UDALBATZA

I. ATALBURUA.- Udalbatzaren osaketa, agintea eta erakuntza, eta Alkatea hautatzea.

5. Art.

Udalerriaren gobernu eta administrazioa Udal Erakundeari dagokio. Udal Erakundea Alkateak eta zinegotziek osatuta dago.

Udal Erakundeak izan behar dituen zinegotzi kopurua, horiek aukeratzeko bidea, Udalbatzaren erakuntza, aginte-aldia, eta hautaezin edo elkartuezin nortzu diren erabakitze modua, hauteskunde-legepele orokorrean araututa dago.

TITULO I

DE LA CORPORACIÓN

CAPITULO I.- De la composición, mandato y constitución de la Corporación y elección del Alcalde.

Art. 5

El Gobierno y la Administración del Municipio corresponde al Ayuntamiento, integrado por el Alcalde y Concejales.

La determinación del número de Concejales del Ayuntamiento y el procedimiento para su elección, la constitución del Ayuntamiento, la duración de su mandato y los supuestos de inegibilidad e in-



II. IDAZPURUA

IHARDUTZE SAILAK ETA BEREN IHARDUNBIDEAK

I. ATALBURUA.- Ihardutze sailak orokorrean.

6. Art.

1.- Udal Erakundea Alkateak eta zinegotziek osaturik dago, eta horien artean aukeratu dira alkateordeak.

2.- Alkatea, Osoko Bilkura eta Gobernu Batzordea dira Udal Erakundeko ihardutze-sailak.

Udalbatzak Osoko Bilkuran erabaki behar dituen gaiak aztertu eta horiei buruzko informazioa jasotzeko, sail-osagarriak antolatuko dira, beti ere Araudi honetan xedatutakoari jarraiki.

II. ATALBURUA.- Alkatea

7. Art.

Alkatea, pertsona bakarrak osaturiko saila, Udalbatza-burua da.

8. Art.

1.- Alkateari bere kargua ken dakioke, zinegotzien erabateko gehiengoak haren aurkako gaitzespen eskea onartzen badu.

2.- Gaitzespen eske hori gutxienez zinegotzien herenak izenpetua egon behar da, Alkate izateko hautagai berriaren izena barne duelarik. Gaitzespen eskea aurrera

compatividad son las reguladas en la legislación electoral general.

TITULO II

DE LOS ÓRGANOS Y SU FUNCIONAMIENTO

CAPITULO I.- De los órganos en general

Art. 6

1. El Ayuntamiento se compone del Alcalde y los Concejales, de entre los cuales aquél designará a los Tenientes de Alcalde.

2.- Son órganos del Ayuntamiento, el Alcalde, el Pleno y la Comisión de Gobierno.

Con funciones de estudio e informe de los asuntos que hayan de ser sometidos a la decisión del Pleno se constituyen órganos complementarios con sujeción a lo que se establece en este Reglamento.

CAPITULO II.- Del Alcalde

Art. 7-

El Alcalde, órgano unipersonal, es el Presidente de la Corporación.

Art. 8

1.- El Alcalde puede ser destituido de su cargo mediante moción de censura adoptada por mayoría absoluta de Concejales.

2.- La moción debe ser suscrita al menos por la tercera parte de los Concejales e incluir el nombre del candidato pro-



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

joanez gero, hautagai hori Alkate izendatua izango da. Zinegotzi bakoitzak ezin du gaitzespen eske bat baino gehiago izenpetu.

3.- Zinegotzi guztiak izan daitezke hautagai, artikulua honetan aurrikusitako ondorioetarako.

9. Art.

1.- Alkateordeak izango dira Alkatearen ordezkariak, hura kanpoan edo gaisorik dagoenean, edota alkate-postua hutsik dagoenean.

2.- Egoera hori erasota uzteko eta ordezkariak atzerakuntzarik gabe egiteko, Idazkariak beharrezko neurriak hartuko ditu.

10. Art.

1.- Alkatearen betebeharrak, besteak beste, hauexek dira:

a) Udal administrazioa eta gobernu zuzentzea.

b) Udal Erakundearen ordezkari izatea.

c) Osoko Bilkuraren, Gobernu Batzordearen eta Udal Erakundearen beste ihar-dutze-sailen bilkuretarako deialdiak egin eta eurotan buru izatea.

d) Udaleko zerbitzu eta lanak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.

e) Bandoak egitea

f) Gastuak erabakitzea, bere agintek uzten dion neurrian, ordainketak egi-

puesto para Alcalde, quien quedará proclamado como tal en caso de prosperar la moción. Ningún Concejales puede suscribir durante su mandato más de una moción de censura.

3.- A los efectos previstos en el presente artículo todos los Concejales pueden ser candidatos.

Art. 9

1. Sustituyen al Alcalde los Tenientes de Alcalde, por el orden de su nombramiento, en los casos de vacante, ausencia o enfermedad.

2. En cualquier caso el Secretario adoptará las medidas necesarias para dejar constancia de la situación, y para que la sustitución se produzca sin demora.

Art. 10

1. Al Alcalde le corresponde, en todo caso las siguientes atribuciones:

a) Dirigir el gobierno y administración municipales.

b) Representar al Ayuntamiento.

c) Convocar y presidir las sesiones del Pleno, de la Comisión de Gobierno y de cualesquiera otros órganos municipales.

d) Dirigir, inspeccionar e impulsar los servicios y obras municipales.

e) Dictar Bando.

f) Disponer gastos, dentro de los límites de su competencia, ordenar pagos y



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

teko agintzea eta kontuak ematea.

g) Udal Erakundeko langile guztien nagusia izatea.

h) Udaltzaingoaren nagusia izatea. Armak eraman ditzaketen funtzionarioak izendatzea eta zigortzea.

i) Premiazko kasuetan auzibide eta administrazio bideak erabiltzea.

j) Hondamendi edo zorigaitza gertatuz gero, edo gertatzeko arriskua dagoela somatuz gero ere, dagozkion neurriak hartzea, eta Osoko Bilkurari horren berri ematea ahalaik eta arinen.

k) Zigorrak jartzea berak agindutakoa ez betetzeagatik edo Udal Ordenantzetan xedatutakoa ez betetzeagatik, eskubide hori beste sail batzuei ez badagokie.

l) Obrak eta zerbitzuak kontratatzea, horretarako erabiliko den dirukopurua Aurrekontuko errekurso arrunten 100eko 5a baino gehiago ez denean, eta kontratazio zuzenei jartzen zaien muga orokorraren 100eko 50a baino gehiago ez denean, beti ere indarrean dagoen lege-ihardupideari jarraiki.

ll) Baimenak ematea, Ordenantzek hala agintzen dutenean.

2.- Alkateak ordezkotzan eman ditzake bere aginpide guztiak, honako hauek izan ezik: Osoko Bilkuraren eta Gobernu Batzordearen bilkuretarako deialdiak egitea, eta eurotan mahaiburu izatea; artikuluko honetako 1. puntuan agertzen diren a), c), g), i), j) puntuetan adierazitakoak ere ezin ditu ordezkotzan eman. Ordezkotza osoa izan daiteke, hots, aginpide guztia ordezkotzan ematea; edo berezia, hau da:

rendir cuentas.

g) Desempeñar la jefatura superior de todo el personal de la Corporación.

h) Ejercer la jefatura de la Policía Municipal, así como nombrar y sancionar a los funcionarios que usen armas.

i) Ejercitar acciones judiciales y administrativas en caso de urgencia.

j) Adoptar personalmente, y bajo su responsabilidad, en caso de catástrofe o infortunios públicos o grave riesgo de los mismo, las medidas necesarias adecuadas, dando cuenta inmediata al Pleno.

k) Sancionar las faltas por desobediencia a su autoridad o por infracción de las Ordenanzas municipales, salvo en los casos en que tal facultad esté atribuida a otros órganos.

l) Contratar obras y servicios, siempre que su cuantía no exceda del 5 por 100 de los recursos ordinarios de su Presupuesto ni del 50 por cien del límite general aplicable a la contratación directa, con arreglo al procedimiento legalmente establecido.

ll) Otorgar las licencias, cuando así lo dispongan las Ordenanzas.

2.- El Alcalde puede delegar el ejercicio de sus atribuciones, salvo las de convocar y presidir las sesiones del Pleno y de la Comisión de Gobierno y las anumeradas en los apartados a), e), g), i), j) del número 1 de este Artículo. La delegación puede ser general en relación con una atribución ó especial para cometidos específicos en alguna de ellas. Las primeras pueden disponerse en favor de la Comisión de Gobierno



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

aginpidea ematea, alkateari dagokion zer-bait inork egin dezan. Osoak, Gobernu Batzordeari edo batzordekideei eman da-kizkieke; bereziak, edozein zinegotziri, Gobernu Batzordeko kide ez izan arren. Ezin izango da ordezkotzan utzi Udal-Erakundearen ordezkariak.

Ordezkapen eta aldaketa guztien berri eman beharko zaio Osoko Bilkurari, ordezkapen-aldaketak burutu ondoren egi-ten den lehendabiziko batzarrean.

3.- Alkatearen iharduketek Dekre-tua izango dute bide.

11. Art.

Alkateari dagokio, Udal-Erakundearen ordezkari ohizkoa den al-detik, Administrazioarteko harremaneta-rako bideak egitea. Horretarako, bai Udal-batzar-kideek, baita Udaletxeko langileek ere, honako arau hauei jarraiki jokatu be-harko dute:

a) Aginte Publiko guztiekiko ko-munikazioa Alkateak izenpeturiko idazki bidez egingo da; berak Udalbatzarreko beste kideren bati ordezkotzan ematen badio ahalmen hori, komunikazioa bere ordezkariak egin ahal izango du.

b) Egiaztagiriak Alkatearen aginduz eta haren oniritziarekin egingo dira. “Oni-ritzia”k agiria egiten ari den lanaria dago-kion karguan dagoela eta sinadura beneta-koa dela besterik ez du egiaztatzen.

c) Udalerraren barrutian egin dai-tezen jendaurreko ekintzetan, Alkatea izango da buru, legez beste Agintariren bati ez badagokio behintzat.

o de alguno de sus miembros. Las delega-ciones especiales pueden realizarse en fa-vor de cualquiera de los Concejales aunque no pertenezcan a la Comisión de Gobierno. No podrá ser objeto de delegación general la atribución de representar al Ayuntamien-to.

De todas las delegaciones y de sus modificaciones se dará cuenta al Pleno en la primera sesión que éste celebre, con pos-terioridad a las mismas.

3.- Los actos del Alcalde revestirán la forma de Decreto.

Art. 11

Al Alcalde, como representante ordinario del Ayuntamiento, le corresponde instrumentar las relaciones interadministra-tivas. A tales efectos, tanto los miembros de la Corporación como el personal del servicio de la misma observarán las si-guientes normas:

a) La comunicación formal con todos los poderes públicos se efectuará mediante escritos firmados por el Alcalde, salvo que por razón de las delegaciones que él mismo hubiera podido conferir, di-cha comunicación la pueden realizar otros miembros de la Corporación.

b) Las certificaciones serán expedi-das de orden y con el “Visto Bueno” del Alcalde. El “Visto Bueno” solamente acre-dita que el funcionario certificante está en el ejercicio de su cargo y que la firma es auténtica.

c) Los actos públicos que se cele-bren en el término serán presididos por el Alcalde salvo que por disposición legal



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

III. ATALBURUA.- Osoko Bilkura.

1. Atala.- Osoko Bilkuraren aginpideak, eta zinegotzien parte-hartzea.

12. Art.

1.- Udal Erakundeko Osoko Bilkura, Udaleko kide-anitzeko sail gorena, Alkateak eta zinegotzi jaun/andreek osaturik dago.

2.- Osoko Bilkurak ohizko eta ohizkanpoko batzarrak egiten ditu; batzarrotan denek dute hitz egin eta botoa emateko eskubidea. Eskubide hori, araudi honetan xedatutakoari jarraiki erabiliko dute.

13. Art.

Osoko Bilkurari honako agintepide hauek dagozkio:

a) Gobernu Organoak kontrolatzea eta ikuskatzea; kide anitzeko sailak, kideak eurak eta toki-erakunde txikiak eragiten dituzten aginpide-arazoei erantzuna ematea; eta Udalbatzako kideei dagozkien lan-sari eta diru-ordainen zenbatekoa ezartzea, 85. art.ak dioenari jarraiki.

b) Honako gai hauetaz erabakia hartzea: mankomunitateak edo bestelako elkartasun-erakundeak sortu, aldatu edo desegin; horien estatutoak onartu edota aldatu; eta, orokorrean, udalaz gaindiko erakundeetan parte-hartu; udalerriaren mugak aldatu eta muga berriak jarri; Udalak eta Toki-Erakunde txikiak sortu, deuseztatu, baita aldatu ere, hala badagokio; banatutako organoak sortu; Udalaren kapitalitatea aldatu; Udalaren edo Toki-Erakundeen izena(k) aldatu; bere(n) aharmarria edo

corresponda la presidencia a otra Autoridad.

CAPITULO III.- Del Pleno.

Sección 1ª. De sus atribuciones y de la participación de los Corporativos en él.

Art. 12

1.- El Pleno de la Corporación, órgano colegiado supremo del Ayuntamiento, está formado por el Alcalde y los Concejales.

2. El Pleno ejerce sus atribuciones en régimen de sesiones ordinarias y extraordinarias, en las que todos sus miembros tienen voz y voto, que lo ejercitan en los términos de este reglamento.

Art. 13

Corresponden, en todo caso, al Pleno, las siguientes atribuciones:

a) Controlar y fiscalizar a los órganos de gobierno, resolver los conflictos de atribuciones que afecten a órganos colegiados, miembros de estos o Entidades locales menores, y establecer las retribuciones e indemnizaciones de los miembros de la Corporación conforme a lo que establece el artículo 85.

b) Resolver sobre la creación, modificación o disolución de Mancomunidades u otras organizaciones asociativas, así como sobre la aprobación y modificación de sus estatutos, y, en general, participación en organizaciones supramunicipales, alteración del término municipal y la delimitación de éste, creación y supresión de Municipios y de Entidades locales menores así como la modificación de éstas, creación de órganos desconcentrados, alteración de



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

entseina hartu ala aldatu; herritarrek zenbait gairi buruz duten iritzia jaso.

c) Planak eta hirigintzako legerian aurrikusitako gainerako antolaketa eta kudeaketa bideak onartzea.

d) Araudi Organikoa eta Ordenantzak onartzea eta aldatzea.

e) Dirubide edota mailegu eragiketak onartzea, eta kitapen edo luzapenak ematea; zergak ezartzea, bere zerga baliabideak antolatzea eta, orokorrean, horiei buruzkoa erabakitzea; zerga-kudeaketan emandako egintzak erabat eta berez balio-gabetu direla adieraztea; aurrekontuak onartzea eta aldatzea; agindipidea duen gaietan gastuak erabakitzea eta kontuak onartzea.

f) Ondasun eta zerbitzuen emakidak ematea; zerbitzuen eraentza-modua onartzea; monopolio erako edo bestelako iharduerak udalekotzea; udaleko lan-arrunten egitasmoak onartzea; horien burutzapena kontratatzea, eta zerbitzuak aurkeztea, aurrekontuko dirubaliabide arrunten 100eko 5a baino gehiago direnean edo zuzeneko kontratazioari ezar dakizkion muga orokorraren 100eko 50a baino gehiago direnean.

g) Eginkizunak edo iharduerak beste Herri Administrazioaren bati eskualdatzea, eta horiek ordezkotzan emandako aginpideak onartzea.

h) Aginpide auzia aurkeztea beste Herri-Administrazio batzuei.

i) Ondorengo hauek onartzea: langile zerrenda, lanpostuen zerrenda, urteroko

la capitalidad del Municipio y cambio de nombre de ésta o de aquellas Entidades y la adopción o modificación de su enseña o escudo, y sometimiento de asuntos a consulta popular.

c) Aprobar los planes y demás instrumentos de ordenación y gestión previstos en la legislación urbanística.

d) Aprobar y modificar el Reglamento Orgánico y las Ordenanzas.

e) Aprobar operaciones financieras o de crédito y conceder quitas o esperas, aprobar la imposición y Ordenación de los recursos propios de carácter tributario y, en general, cuanto conciernan a su determinación; declarar la nulidad de pleno derecho y la revisión de los actos dictados en vía de gestión tributaria; aprobar y modificar los presupuestos; ordenar gastos en los asuntos de su competencia y aprobar las cuentas.

f) Otorgar concesiones de bienes y servicios y en general, aprobar la forma de gestión de los servicios, aprobar, igualmente, la municipalización de actividades con o sin monopolio; aprobar proyectos de obras municipales ordinarias contratar su ejecución y la presentación de servicios siempre que su cuantía exceda del 5 por 100 de los recursos ordinarios de su Presupuesto o del 50 por 100 del límite general aplicable a la contratación directa.

g) Transferir funciones o actividades a otras Administraciones públicas y aceptar la delegación de las hechas por éstas.

h) Plantear conflictos de competencias a otras Administraciones Públicas.

i) Aprobar la plantilla de personal,



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

lanpostu-eskaintza, langileen hauta-probetarako eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako oinarri-arauak. Herri langileen ordainsari osagarrien zenbatekoa eta behin-behineko langileen kopurua, baldintzak zehaztea, baita horien lansariak eta lan-orduak ere; halaber, Udalbatzak izendaturiko herri-langileak zerbitzutik bazter-tzea, eta lan-itunepeko langilegoaren irazpena sendestea.

j) Auzibide eta administrazio bidera jotzea.

k) Herri-erabilerako ondasunen lege-sailkapena aldatzea.

l) Aurrekontuko diru-baliabide arruntan %5a baino gehiago balio duten ondasun higikorak erostea, ondasun higiezinak erostea, eta horiei buruzko tratuak egitea; ondare hori saltzea; baita ondasun horiek beste edozein eratan erabiltzea ere, hala nola ondasunak beste herri administrazio edo erakundeei dohainik uztea, edota irabazi asmorik ez duten herri intereseko erakunde pribatuei dohainik erabiltzen uztea.

ll) Alkateari aurkezturiko gaitzespen eskeari buruz erbakia hartzea.

14. Art.

1.- Bilkura guztietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izateaz gain, zinegotziek parte-hartzeko eskubidea ere badute, bai banaka, bai taldeka, ondorengo bideei jarraiki:

a) Bilkura guztietan: proposamenak, boto partikularrak eta zuzenketa eskeak.

la relación de puestos de trabajo, la oferta anual de empleo, las bases de las pruebas para la selección de personal y para los concursos de provisión de puestos de trabajo. Fijar la cuantía de las retribuciones complementarias de los funcionarios, el número y régimen de retribuciones y dedicación de los funcionarios de empleo eventuales, así como la separación del servicio de los funcionarios cuyo nombramiento corresponde a la Corporación, y la ratificación del despido del personal laboral.

j) Ejercitar acciones administrativas judiciales.

k) Alterar la calificación jurídica de los bienes de dominio público.

l) La adquisición de bienes muebles siempre que su cuantía exceda del 5% de los recursos ordinarios del presupuesto, la adquisición de bienes inmuebles y la transacción sobre los mismos, así como su enajenación o cualquier otro acto de disposición incluyendo la cesión gratuita a otras administraciones o instituciones públicas o la cesión gratuita de uso a Instituciones privadas de interés público sin ánimo de lucro.

ll) Resolver sobre la moción de censura al Alcalde.

Art. 14

1.- Además del derecho de voz y voto en todas las sesiones los Concejales pueden participar, de modo individualizado o por grupos, utilizando los siguientes medios:

a) En todas las sesiones: proposiciones, votos particulares y enmiendas.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- b) Ohizko bileretan, horrez gain: premiazko mozioak, galderak, argibide-eskaerak eta eskabideak.

2.- Zinegotziek gaitzespen eskeak egin ditzakete.

3.- Bilkuretan honako terminologia hau erabiliko da:

a) Diktamena: Informazio Batzordeak espedienteaz aztertuta, Osoko Bilkurari aurkezten zaion proposamena da. Azalpen zati bat eta horri buruz har daitekeen erabakiaz osaturik egon ohi da.

b) Proposamena: Deialdiarekin batera doan Gai-Zerrendako gai bati buruz, Osoko Bilkurari aurkezten zaion saloa da. Azalpen edo justifikazio zati bat eta horren gainean har daitekeen erabakiaz osaturik egon ohi da.

c) Mozioa: Osoko Bilkurari zuzenean aurkezten zaion proposamena da. Araudi hoentako 16. art. an dago araupetuta. Idatziz zein ahoz aurkez daiteke.

d) Boto partikularra: Informazio Batzordeko kideren batek diktamen bat aldatzeko egiten duen proposamena da. Diktamenarekin batera joan beharko da proposamen hori, Batzordeak onartu osteko egunetik aurrera.

e) Zuzenketa-eskea: Gai bat eztabaidatzen hasi baino lehen, Udaltzako edozein kidek Mahai-buru jaun/andreari diktamen edo proposamen bat aldatzeko egiten

- b) En las sesiones ordinarias, además: mociones de urgencia, preguntas e interpelaciones y ruegos.

2.- Los Concejales pueden igualmente, utilizar la moción de censura.

3.- A los efectos del desarrollo de las sesiones se utilizará la siguiente terminología.

a) Dictamen, es la propuesta sometida al Pleno tras el estudio del expediente por la Comisión Informativa. Contiene una parte expositiva y un acuerdo a adoptar.

b) Proposición, es la propuesta que se somete al Pleno relativa a un asunto incluido en el Orden del Día, que acompaña a la convocatoria. Contendrá una parte expositiva o justificación y un acuerdo, así mismo, a adoptar.

c) Moción, es la propuesta que se somete directamente a conocimiento del Pleno, de acuerdo con lo regulado en el Art. 16. Podrá formularse por escrito u oralmente.

d) Voto particular, es la propuesta de modificación de un dictamen formulada por un miembro que forma parte de la Comisión Informativa. Deberá acompañar al Dictamen desde el día siguiente a su aprobación por la Comisión.

e) Enmienda, es la propuesta de modificación de un Dictamen o proposición presentada por cualquier miembro al Presidente ante de iniciarse la deliberación del asunto.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

dion proposamena da.

f) Eskabidea: Udaleko gobernu-sail batzuei zuzenduriko ihar-dutze-proposamena da. Osoko Bilkuran aurkezten diren eskabideak eztabaidatu egin daitezke, baina ez bototara jarri.

Udalbatzako kide guztiek egin ditzakete eskabideak, bai ahoz zein idatziz. Gehienetan, aurkeztu diren batzarrean bertan eztabaidatuko dira, baina, datu nahiko eduki ezean, hurrengo bilkura batean eztabaidatzeko utzi ahal izango dira.

g) Galdera: Osoko bilkuran gobernu-sailei egiten zaien edozein itaun da. Udalbatzako kide guztiek egin ditzakete galderak.

Batzarra hasi baino 24 ordu lehenago idatziz aurkezten diren proposamenei batzarrean bertan emango zaie erantzuna, edo hurrengokoan, pisudun arrazoiren bat baldin badago.

15. Art.

Proposamenen xedea, gai bat batzarreko gai-zerrenda sartzea da; horretarako, deialdia egin baino lau egun aurretik aurkeztu beharko da Idazkaritzan.

16. Art.

Bidezkoa izango da premiazko mozioa, gai zerrendan ez dagoen gairen baten berri zuzenean eman nahi zaionean Udalbatzari, berri hori Osoko Bilkurako gai zerrendan sartutako gaiak aztertu ondoren, oharrak eta galderak egin aurretik eman beharko delarik. Berri-emaileak kasu

f) Ruego, es la formulación de una propuesta de actuación dirigida a algunos de los órganos de gobierno municipal. Los ruegos formulados en el seno del Pleno, podrán ser debatidos, pero no sometidos a votación.

Pueden plantear ruegos todos los miembros de la Corporación y podrán ser efectuados oralmente o por escrito, siendo debatidos generalmente en la misma sesión, sin perjuicio de que lo puedan ser en la sesión siguiente por falta de datos.

g) Pregunta, es cualquier cuestión planteada a los órganos de gobierno en el seno del Pleno. Pueden plantear preguntas todos los miembros de la Corporación.

Las propuestas formuladas por escrito con 24 horas de antelación, serán contestadas ordinariamente en la sesión o, por causas debidamente motivadas, en la siguiente.

Art. 15

Las proposiciones tienen por objeto la inclusión de un asunto en el Orden del Día, debiendo a tal efecto entregarse en la Secretaría cuatro días antes de la convocatoria.

Art. 16

Procederá la moción de urgencia cuando, en las sesiones ordinarias concluido el examen de los asuntos incluidos en el Orden del Día y antes de pasar al turno de Ruegos y Preguntas, se desee someter a conocimiento de la Corporación una cues-



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

horren premiazkotasuna azaldu eta arrazoi-tu egin beharko du.

Mozioaren edukiaz ezer erabaki aurretik, edo erabakia beste bilkura batera arte atzeratuko dela ebatzi baino lehen, Udalbatzak, bertan daudenen erabateko gehiengoarekin, aitortu egin beharko du mozioaren premiatasun hori.

17. Art.

Udalbatzako kideek galderak eta argipide-esketak egiteko duten eskubidea, arau hauei jarraiki gauzatuko da:

1.- Galdera edo argipide-esketzat joko dira, Udalbatzako kideek Alkateari egintza batez, edo zinegotziren bati iharduketa batez, egingako itaunak.

2.- Galderak edo argipide eskeak Ohizko Bilkuretan egingo dira, gaitzerrendan sartutako gaiak aztertzen bukatu eta gero.

3.- Galdera edo argipide-eskea jaso duenak une horretan bertan edo egokiro informatzeko datu nahikoa bildu ondoren erantzun ahal izango du, horretarako duen epea astebetekoa delarik galdera egin diotari berari erantzuteko; gainontzekoei, hurrengo bilkuran.

2. Atala. Bilkurak

1. Azpiatala. Motak, deialdiak eta erakuntza.

18. Art.

1.- Osoko Bilkura hilean behin bildu ohi da.

2.- Aurreko ahapaldian adierazitako

ción que no figure en el Orden del Día. Su autor habrá de alegar y justificar la urgencia del caso.

Corresponderá al Pleno de la Corporación declarar la urgencia mediante el voto favorable de la mayoría absoluta de los miembros presentes, antes de resolver sobre el contenido de la moción o aplazarlo hasta otra sesión.

Art. 17.

El derecho de los Corporativos a formular preguntas e interpelaciones se sujetará a las siguientes reglas:

1ª Serán tratadas como preguntas o interpelaciones toda petición de los Corporativos por la que interesen del Alcalde o algún Concejal información sobre un hecho o actuación respectivamente.

2ª Las preguntas o interpelaciones se habrán de formular en las sesiones ordinarias, después de despachar los asuntos comprendidos en el Orden del Día.

3ª El preguntado o interpelado podrá contestar en el acto o cuanto haya reunido los datos precisos para informar debidamente, en el plazo máximo de una semana de manera personal a quien haya planteado la pregunta, y públicamente, en la sesión siguiente.

Sección 2ª. De las sesiones.

subsección 1ª. De sus clases, convocatoria y constitución.

Art. 18

1. El pleno celebra sesión ordinaria una vez al mes.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

aldizkotasunaz bildurik, Osoko Bilkurak, Udala eratu ondoren egin dadin lehen batzarrean, ohizko bilkuren eguna eta ordua ezarriko ditu, nahiz eta ordu-egun horiek aldagarriak izan Udalbatzaren agintaldiak dirauen bitartean.

19. Art.

Udalbatzak Ohiz Kanpoko Bilkura egingo du, Alkateak hala erabakiz gero edo zinegotzi jaun/andreen laurdenak eskatuz gero. Azken kasu horretan, eskaera egin denetik hasita bi hilabeteko epe barruan egin beharko da bilkura.

Besteren kaltetan izan gabe, eskaera hori eraz egindakotzat hartuko da, eskaeridazkia Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkezten denean. Lehen aipatutako epea, idazkia erregistroan erasota utzi den egunaren biharamonetik hasten da.

20. Art.

Bilkurak lehen deialdian egingo dira, adierazitako orduan, edo, hala bada, bigarren deialdian, berrogeita zortzi ordu beranduago. Hala izanez gero, idazki bidez jakinarazi beharko zaie Udalbatzako kide guztiei, bilkura eguna baino bi egun lehenago -premiatzkoak diren Ohiz Kanpoko Osoko Bilkuretarako deialdiak salbuesita daude epe horretatik- Ohiz Kanpoko Bilkuretarako ez da kontutan hartuko deialdi eguna ezta bilkura eguna ere.

2.- Alkateari dagokio premiazkotasuna erabakitzea. Hala ere deialdi bat premiazkoa izateagatik egiten bada, Udalbatzak sendetsi egin beharko du bilkuraren premiafasun hori.

Horretarako, Alkateak premiazkotasunaren arrazoiak azaldu beharko ditu;

2. Con la periodicidad indicada en el número anterior, el Pleno, en la primera sesión siguiente a la de constitución del Ayuntamiento, establecerá el día y hora de las sesiones ordinarias, que podrán ser modificados durante el mandato Corporativo.

Art. 19

El Pleno celebrará sesión extraordinaria cuando así lo decida el Alcalde o lo soliciten una cuarta parte de los Corporativos. En este último caso, la celebración del mismo no podrá demorarse por más de dos meses desde que fuera solicitado.

Sin perjuicio de otras, se entenderá formalmente hecha tal solicitud cuando se presente escrito en tal sentido en el Registro General del Ayuntamiento, contándose el plazo antes dicho a partir del día siguiente al de la inscripción.

Art. 20

1. Las sesiones se celebrarán, en primera convocatoria, a la hora indicada, y, en segunda, en su caso, cuarenta y ocho horas después, previa notificación escrita, expresiva de ambas, a los miembros de la Corporación, que, salvo en las extraordinarias que lo hayan sido con carácter urgente, se efectuará con dos días de antelación, en los que no se tendrá en cuenta ni el día de la convocatoria ni el de la celebración de la sesión.

2.- Compete al Alcalde resolver sobre la urgencia. No obstante la convocatoria con este carácter deberá ser ratificado por el Pleno.

A tal efecto el Alcalde expondrá las



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

sendetsizat hartuko da, eta eztabaidatzen hasi, bilkuran dagoen inork ere ez badu aur-kakorik esaten. Hala gertatuko balitz, bototara jarri beharko litzateke premiazko-tasuna, eta aurrera joan ezean, Alkateak bukatutzat eman beharko luke bilkura, deialdi horretako gaia eztabaidatu gabe.

21. Art.

1.- Deialdiarekin batera gai-zerrenda ere bidaliko da. Gai-Zerrenda Alkateak erabakiko du, Udal-Erakundeko Idazkariaren laguntzaz eta espediente aztertu eta prestatuak ikusi ondoren.

2.- Gai-Zerrenda honelaxe antolatuko da:

a) Aurreko bilkurako akta irakurri eta onartu, hala badagokio.

b) Dagokionaren berri ematea. Hemen, besteren kaltetan gabe, 10.2 art.aren araberrako gaiak sartuko dira, baita udal-alorrean eragina duten oinarritzko erabakiei buruzko informazio beharrezkoa ere.

c) Udalbatzako kideen proposamenak.

d) Oharrak, galderak eta argipide-eskaerak.

22. Art.

Eztabidatu eta, hala badagokio, bototara jarriko diren gai-zerrendako gaiei buruzko dokumentazio osoa, Udalbatzako kideen esku egongo da Udaletxeko Idazkaritzan, bilkurarako deialdia egin den egu-

razones de la urgencia y se entenderá hecha la ratificación, pasándose, sin más formalidad, a la discusión del asunto si ninguno de los presentes hiciera manifestación en contrario. Si la hiciera se procederá a la votación sobre la urgencia, y, de no prosperar, el Alcalde levantará la sesión sin pronunciamiento sobre el asunto que motivó la convocatoria.

Art. 21

1. A la convocatoria se acompañará el orden del día fijado libremente por el Alcalde, asistido por el Secretario de la Corporación y a la vista de los expedientes ultimados en su fase de estudio y preparación.

2.- El orden del día tendrá la siguiente disposición:

a) Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.

b) Dación de cuenta, en ella, sin perjuicio de otras, se comprenderán las que proceda con arreglo al artículo 10.2, así como la información pertinente en relación con las disposiciones de carácter general con repercusión de la vía municipal.

c) Propositiones de los miembros de la Corporación.

d) Ruegos, preguntas e interpellaciones.

Art. 22

La documentación íntegra de los asuntos incluidos en el orden del día que deba servir de base al debate y, en su caso, votación, estará a disposición de los Corporativos, desde el mismo día de la convo-



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

netik aurrera.

23. Art.

1.- Batzarrak irekiak dira. Dena dela, zenbait gairen eztabaida eta botazioa ixilpekoak izan daitezke, horien artean herritarren izen ona, gizabanakoaren eta familiaren barnekoitasuna eta norbere buruaren uste ona eragin dezaketenak, horrela izan behar dela erasota baitago maiatzaren 5eko 1/1985 Oinarrizko Legean.

Hortaz, ondorengo araei jarraiki jokatu beharko da:

a) Udalbatzari aurkeztutako espedienteren batek goian adierazitako egoeraren bat sortaraz badezake, eragindakoak izan litezkeenei horren berri emateko eskatuko dio Alkateak Idazkariari; eragindakoek eztabaida eta botazioa ixilpekoa izan daitezela eskatu ahal izango diote Alkateari.

b) Eskatera Idazkariaren aurrean egingo da agerpen-agiri bidez, edo idatziz, edo eragindakoak zeintzu diren jakitea, eta behintzat batzar aurretik euren berri edukitzea, uzten duen beste edozein bide baten bitartez.

c) Espedientetik ezin badaiteke horrelako egoerarik aurrikusi, edota eragindakoak ez egoteagatik, besterik ezinekotan edo antzeko arrazoirengatik ezin badaiteke horren berri eman edo goiko letrak aipa-tzen duen eskaera egin, Udalbatzarreko edozein kidek eskatu ahal izango du eztabaida eta botazioa ixilpekoak izan daitezela.

d) Osoko Bilkurak eztabaida ixilpekoa izan dadila ebatzi ahal izan du, Udalbatzako kide kopuru legezkoaren era-

catoria, en la Secretaría de la Corporación.

Art. 23

1. Las sesiones son públicas. No obstante, podrán ser secretos el debate y votación de aquellos asuntos que puedan afectar al derecho de los ciudadanos al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen en los términos de la Ley Orgánica 1/1.085, de 5 de Mayo.

A los efectos indicados se observarán las reglas siguientes:

a) Cuando del expediente sometido a la decisión del Pleno pudiera deducirse que han de producirse las situaciones indicadas, el Alcalde ordenará al Secretario que lo notifique a los posibles afectados, que podrán interesar del Alcalde el secreto del debate y votación.

b) La solicitud se hará mediante acta de comparecencia ante el Secretario, o por escrito y otro medio que permita la identificación de los afectados, y, en cualquier caso, su conocimiento antes de la sesión.

c) Cuando del expediente no pudieran deducirse tales situaciones, o cuando por razones de ausencia de los afectados, fuerza mayor u otras análogas, no pudiera efectuarse la notificación o producirse la petición a que se refiere la letra anterior, cualquier Corporativo podrá proponer que el debate y votación sean secretos.

d) El Pleno podrá acordar el secreto del debate mediante pronunciamiento favorable a la petición o propuesta por mayoría



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

bateko gehiengoa horren alde agertzen bada.

e) Gai horretara heltzerakoan, Batzar Gelan egon litekeen jendea irtenaraziko da, eta berririo sartzen utzi, gaia bototara jarri ondoren.

2.- Batzarrak grabatu edota irrati bidez eman daitezke.

24. Art.

Ohizko edo Ohiz Kanpoko Bilere-tara doazen herritarrek batzarrotan parte-hartzeko eskubidea dute. Horretarako, gairerrendako zein-puntutan parte hartu nahi duten jakinarazi beharko diote, batzar aurretik, mahaiburuari. Udalbatzako kideek puntu horretara heltzen direnean, puntuhasieran besterik ezin izango dute hitz egin, parte hartuko dutela adierazi duten herritarrek.

25. Art.

1.- Osoko Bilkura balio osoz eratu-tzat hartuko da gutxienez sei zinegotzi elkartzuz gero. Sei horien artean Alkatea eta Udal-Erakundeko Idazkaria, edo horiek legez ordezkatzan dituztenak, egon beharko dira.

Udalbatzako kideak Osoko Bilkura-ra etorri direla edo Bileran daudela esango da, Batzar-Gelan baldin badaude. Osoko Bilkurako mahaiburuak bakoitza bere lekuan jezartzeko eska diezaike Udalbatzako kideei, jazarri ezean batzarrera etorri gabekotzat joko zaielarik.

2.- Zinegotziren bat ez baldin bada-go -hil egin delako, ezintasunagatik, edo

absoluta del número legal de miembros de la Corporación.

e) -El salón será desalojado de público cuando se trate el asunto, volviendo a declararse pública la sesión al concluir la votación del mismo.

2.- Podrán realizarse grabaciones e incluso retransmisiones de las sesiones.

Art. 24

Los vecinos del Municipio que asistan a los plenos, tanto ordinarios como extraordinarios podrán intervenir en los mismos, para ello deberán comunicar al comienzo del pleno al Presidente su deseo de intervenir en los puntos del Orden del Día que deseen. En estas peticiones solamente tendrán el uso de la palabra al comienzo de la discusión del punto en el que han solicitado intervenir.

Art. 25

1.- El Pleno se constituye válidamente con la asistencia de seis Corporativos. Este quorum deberá mantenerse durante toda la sesión. En todo caso se requiere la asistencia del Alcalde y del Secretario de la Corporación o de quienes legalmente les sustituyan.

Se considerará que un miembro de la Corporación asiste o está presente en el Pleno cuando se encuentre en el recinto destinado a aquélla. El presidente podrá requerir a los Corporativos, en su caso, para que ocupen los escaños a ellos reservados, con la conminación de que, de no hacerlo, se le tendrá por no asistente.

2.- En el caso de vacante por fallecimiento, incapacidad o renuncia de un



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

postuari uko egin diolako- eta bere lekua ezin badaiteke berriz bete ez dagoelako zinegotzigairik edo ordezkorik, gehiengo oraindik dirauen Udalbatzako kide kopuruaren herena izango da, edo hirukoa, herena hiru baino gutxiago bada.

